

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudioko Udalaren lokal soziokulturalen lagapena eta erabilera arautzeko Ordenantza. Behin betiko onarpena

2020ko abenduaren 28an, Laudioko Udalaren lokal soziokulturalen lagapena eta erabilera arautzen duen Ordenantzari hasierako onarpena eman zitzaion ohiko osoko bilkuran. Dagokion iragarkia ALHAOn argitaratu zen, 2021eko urtarrilaren 13an, 4. zenbakian, bai eta Udalbatzaren ediktu-taulan eta udalaren webgunean ere, eta jendaurrean jarri zen hogeita hamar egun baliouduneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Arauzko testu hori jendaurrean ikusgai egon den aldian, Laudioko Kulturzaleak Sustatzeko Elkarteak alegazio bat aurkeztu du.

2021eko martxoaren 29an egindako ohiko osoko bilkuran erabaki zen Laudioko Kulturzaleak Kultura Sustatzeko Elkarteak aurkeztutako alegazioa ezestea eta Laudioko Udaleko lokal sozio-kulturalen lagapena eta erabilera arautzen duen Ordenantza behin betiko onartzea.

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikulua eta 70. artikuluen 2. paragrafoan adierazitakoa betez, Laudioko Udalaren lokal soziokulturalen lagapena eta erabilera arautzen duen Ordenantza osorik argitaratuko da ALHAOn, eta ez da indarrean jarriko harik eta hura osorik argitaratu arte eta lege-testu beraren 65,2 artikuluan aurreikusitako hamabost (15) eguneko epea igaro arte. Honela geratuko da idatzita.

LAUDIO UDALAREN LOKAL SOZIOKULTURALEN LAGAPENA ETA ERABILERA ARAUTZEKO ORDENANTZA

HITZAURREA

Laudio herriak ehun soziokultural joria eta berezia du, modu desberdin askotan udalerriarren garapen sozial eta kulturalaren alde lanean diharduten elkarte eta taldeek osatua. Gizarte parte-hartzaileagoa eta demokratikoagoa eraikitzeko bidean berebiziko garrantzia du gaur egun elkarteen munduak, eta funtsezko faktorea da aurrerabide sozialerako.

Hala eta guztiz ere, talde txikiak izaten dira maiz, baliabide tekniko urriak izaten dituzte eskura eta Laudio Udalaren laguntza behar izaten dute euren jarduerak behar bezalako bermearekin bideratu ahal izateko.

Bestalde, Laudio Udalaren betebeharra da udal ondarea efikazia eta errentagarritasun irizpideen arabera kudeatzea. Herritarrengandik gertuen dauden erakundeak diren heinean, eginkizun hori amankomuna zaie udal guztiei, eta berarekin dakar udal baliabideak eta ondasunak elkarteen esku ipintzea, modu koordinatuan laguntzeko elkarteen ehuna trinkotzen, haiek helburu gisa jorra dezaten herritarren alderdi solidarioa, soziala nahiz kulturala suspertzeko, interes orokorrekoak diren gainerako alderdiekin batera.

Hori dela eta, Laudio Udalak aspalditik lagatzen dizkien udal lokal eta espazio desberdinak irabazi-asmorik gabeko elkarteei eta pertsona fisiko zein juridikoei, haien eginkizunak betetzeko ekintzak bidera ditzaten, haien helburuak erdietsi ditzaten eta interes sozialeko jarduerak gara ditzaten.

Dena den, alderdi horrek ez duenez arau espezifikorik, Laudion gero eta elkarte gehiago dagonez herriaren garapen soziokulturalaren alde lanean, udal ondarea izaten ari den bilakaera

ikusita (espazio berriak, espazioak hobetzeko inbertsioak, etab.) eta jazotako arau aldaketak kontuan hartuta (esaterako irisgarritasunari dagokionez), beharrezkoa da hausnartzea eta elkarte guztientzako irizpide objektibo batzuk finkatzea.

Hortaz, bi helburu ditu ordenantza honek: lehenik eta behin, prozedura bat arautzea udal lokalak aukeren berdintasun baldintzetan erabili ahal izan daitezen, lokalei ematen zaien erabilerari dagokionez, gizarteari onurarik handienak ekartzen dizkioten jarduerak lehenetsita, eta, bigarrenik, lokalen erabilera eta funtzionamendua arautzea.

LEHENENGO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Objektua

1. Ordenantza honen objektua da Laudion legalki eraturako talde, elkarte eta bestelako erakundeei udal lokalak lagatzeko prozedura arautzea, haien xede sozialak eta kulturalak nahiz interes publikoa duten bestelako helburuak bete ditzaten.

2. Lokalaren erabilera lagatzean datza, kasuan kasuko erabakian zehaztuko den denboraz, prekarioan, eta, nolahi ere, lagapenak alderdietako ezeinen aldeko eskubide ekonomikorik edo errentatze-eskubiderik sortu gabe.

3. Halaber, lagapen-hartzaileek lokaletan bidera ditzaketen erabileren eta funtzionamendua-
ren esparru orokorra arautzen da, bere izaera juridikotik erator daitezkeen espezifikotasunak, udal espazio edo lokalei ematen zaien erabilera espezifikoa eta erakunde onuradunen xedeak gorabehera.

4. Ordenantza honen irismenetik kanpo utzi dira lokalen erabilera beste administrazio pu-
blikoei edota haien menpeko erakunde edo organismoei lagatzeko nondik norakoak.

5. Halaber, ordenantza honetatik kanpo utzi dira bestelako behar puntual edo iragankorrei
erantzuteko aldi baterako lagapenak, zeintzuk dagokien udal baimenaren bidez arautuko baitira.
Kanpo utzi dira baita ere araudi espezifikoa duten ekipamenduak eta higiezinak.

2. artikulua. Lokalen lagapenen helburuak

Ordenantza honen bidez araututako lagapenek eta erabilerek jarraian ageri diren helburuak
betetzeko balio beharko dute:

- Elkarrekin nahiz udalerriko bizitza osatzen duten gainerako elementuek era partekatuan erabiltzea leku komunitarioak eta topaguneak.

- Elkarte desberdinek antolatzen dituzten programa nahiz zerbitzu kulturalak, informatiboak, prestakuntzakoak, hezkuntzakoak nahiz ludikoak martxan jartzen laguntzea.

- Lagapen horietarako eskura dauden udal baliabideak optimizatzea. Udalak nahiz kolektibo desberdinek lokalen erabilera partekatuta, eskura dauden udal baliabideak optimizatu ahalko dira.

- Udalerriko bizitza asoziatiboa sustatzea.

3. artikulua. Laga daitezkeen lokalak

1. Laudio Udalaren webgunean argitaratu eta eguneratuko den katalogoan jasotako udal areto kulturalak edo izaera soziokulturaleko udal instalazioak laga ahalko dira. Gainera, Lau-
dioko udaletxean, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan kontsultatu ahalko da katalogo hori.

4. artikulua. Onuraduna

1. Udalerriko bizitzarekin zerikusia duten jardueretarako lokala behar duten elkarte edota taldeei laga ahalko zaizkie udal lokal edota instalazioak. Elkarte edo talde horiek Elkarte eta Her-
ritar Erakundearen Udal Erregistroan inskribatuak egon behar dute, udalerrian bideratu beharko dute haien jarduera, eta ezingo dute Laudio Udalarekiko zorrik izan.

2. Ezingo zaie lokalik laga irabazi-asmodun erakundeei, hala badagokie, espazioak alokatu ahalko dituztelako ordenantza fiskaletan zehaztutako zenbatekoak ordaindu ostean, eta, betiere, hala aurreikusi bada.

3. Udalak beretzat gorde du lokalen erabilera xede komertzial edo irabazi asmoz lagatzeko eskubidea, betiere, lagapenaren onuraduna irabazi-asmorik gabeko taldea edota elkarte bada, taldearen edo elkartearen helburuetarako bada eta ez baldin badira erabiltzen elkarteak edo taldeak berezko dituen helburuez bestelako xedeak ezkutatzeko. Kasu horietan, izaera puntuala edo aldi baterakoa izango du lagapenak.

4. Elkarre batek irabazi-asmorik ez duela ondorioztatuko da estatutuetan hala jasoa duenean eta ez duenean inolako jarduera ekonomikorik bideratzen, edo, jarduera ekonomikoa bideratzekotan, jardueraren emaitzak estatutuetan jasotako interes orokorreko helburuak betetzera xederatzen bada, bazkide-tuen edota hirugarrenen artean etekinik banatu gabe.

5. artikulua. Onartzen diren jarduerak

1. Funtsean, jarduera kulturalak, artistikoak, hezkuntzakoak, soziokulturalak edota ludikoak bideratzeko lagako dira lokalak, xede komertzialik gabe edota irabazi-asmorik gabe. Hauek dira onartutako jarduerak, besteak beste:

- Diziplina desberdinetako emanaldi kulturalak (antzerkia, dantza, magia, umorea, etab.)
- Kontzertuak, entzunaldiak eta entseguak.
- Ikus-entzunezkoak proiektatzea.
- Ikastaroak, tailerrak, mintegiak.
- Hitzaldiak, konferentziak.
- Batzarrak.
- Erakusketak.
- Aurkezpenak.

2. Lokalen erabilera ez zaie lagako talde edota elkartei haien gauzak biltegitatzeko espazio soil gisa; xede kultural, artistiko, hezkuntzako, soziokultural edota ludikoetarako erabili beharko dira lokalak.

6. artikulua. Euskararen erabilera

Lagapenen onuradun diren elkarte edo kolektiboek konpromisoa hartu dute Laudio Udalak hizkuntza-normalizazioari buruz xedatutakoa betetzeko. Nolanahi ere, Udalak euskararen alorrean aplikatutako estrategia nahiz arategietan xedatutakoa errespetatuko da.

7. artikulua. Berdintasuna

Udal lokal soziokulturalen erabileraren lagapena jasotzen duten elkarteek emakume eta gizonen sarbide eta parte-hartze orekatua sustatu beharko dute bideratzen dituzten ekimen eta jarduera guztietan. Nolanahi ere, Udalak emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean aplikatutako estrategia nahiz arategietan xedatutakoa errespetatuko da.

BIGARREN TITULUA. LOKALEN LAGAPENA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

8. artikulua. Oinarrizko lagapen- eta erabilpen-araubidea

1. Alde batera utzita lokal mota desberdinak eta horien izaera juridikoa, elkarteen edota erakundeen aldeko lagapena erakunde bakar baten aldekoa nahiz bi edo gehiagoren aldekoa izan daiteke.

2. Arau orokor gisa, eta lokalak helburu asoziatiboetarako optimizatzeko oinarrizko printzipioari jarraikiz, erakunde batzuen arteko erabilera partekatuaren araubidean lagako dira, betiere, lokalaren ezaugarri fisikoek horretarako aukera ematen badute eta balizko erakunde onuradunen berezko jarduera- nahiz zerbitzu-proiektuei nahitaez lotutako eskakizun minimoak betetzen badira.

3. Erakunde bakar baten aldeko erabilera eskusiboko araubidea xedatuko da hala eska-tzen denean, eskaera betetzeko eskuragarritasuna dagoenean eta udal organo eskumendunak erakunde eskatzailearen zerbitzu- edo jarduera-proiektuan hori justifikatzeko interes publikoa antzematen badu.

4. Alde batera utzita erakunde baten edo gehiagoren aldeko lagapena den, oinarrizko era-bilera-araubideak erakunde onuradunei eskubide eta betebeharrak jakin batzuk aitortzea baino ez du inplikatzeko, erakundeak higiezinaren erabilerearen eta kudeaketaren arduradunak diren heinean. Edonola ere, higiezinaren titulartasun nahiz eskuragarritasun publikoa eta horren ondorioz Udalak erabil litzakeen ahalmenak gailenduko dira.

5. Salbuespenak salbuespen, ez zaio erakunde berari udal lokal bat baino gehiago xede bererako erabiltzea baimenduko.

9. artikulua. Lagapen motak

Laudio Udalak udal lokalen lagapen mota hauek egin ditzake:

- Lagapen puntuala: Izaera puntuala eta ez-jarraitua duten erabileretarako (batzarrak, hitzal-diak, konferentziak, prestakuntza-jarduerak, jarduera kulturalak, etab.). Lagapenaren indarraldia astebete baino laburragoa izango da, balizko luzapenak barne.

- Behin-behineko lagapena edo egitasmo zehatz baterakoa: Udal lokal baten lagapen puntual baina jarraitua, jarduera edo egitasmo berari lotutako ekitaldiak bideratzeko egun desberdinetan (prestakuntza-jarduerak, emanaldi bat baino gehiagoko jarduera kulturalak, entseguak, etab.). Lagapenaren indarraldia bi hilabete baino laburragoa izango da, balizko luzapenak barne.

- Aldi baterako lagapena: udal lokal bat erabiliko da alderdiek adostutako epean. Epe horrek ezingo du gaingitu urtebetea, eta esanbidezko luzapena egin ahalko da.

10. artikulua. Lagapenaren izaera

1. Jarraian ageri diren jardueretarako diren lagapenak doakoak izango dira eta prekarioan egingo dira:

- Audio Udalak antolatutakoak edo Udalarekin lankidetzan antolatutakoak.

- Erakunde kultural, hezkuntzako, kirolak, sozial edo ludikoek antolatutakoak, betiere, bideratuko diren jardueretan parte hartzeko inongo zenbatekorik (ezin da sarrerarik edo inskripzio-rik kobratu, ezta beste ezein kontzeptu ere, eta jardueraren xedea ezingo da saltzea izan). Audio Udalak irabazi-asmorik gabeko izaera aitortu beharko du aldi bakoitzean eta esanbidez.

2. Lagapena egiten denean indarrean dagoen ordenantza fiskalean xedatutakoa gorabehera, kostu bidezkoak izango dira, hau da, kontraprestazio ekonomiko bidezkoak lagapen hauek:

- Lokalak puntualki edo programa baten kariatz lagatzea, baldin eta delako jarduerarako sarrera kobratzen bada.

- Legearekin bat eratutako klub edota elkarteei edo pertsona juridikoei lokalak lagatzea etekin ekonomikoa dakarten jardueretarako edota merkatu jardueretarako.

11. artikulua. Erabakitze-organok

Alkate-udalburuak edo haren eskumena eskuordetzan jasotzen duen zinegotziak eba-tziko dute baimenak emateari nahiz lokalen erabileraren inguruko gainerako kontsiderazioei buruzkoak, ez bada aldi baterako lagapenen kasuan; kasu horretan Tokiko Gobernu Batzarra izango da organo ebazle.

12. artikulua. Lagapen- eta erabilpen-irizpidea

1. Erakunde edo partikularren aldeko erabilera-baimenen gaineko lehentasuna izango dute beti Audio Udalak antolatutako edo babestutako jardueretarako erabilerek.

2. Lagapenen objektu diren lokalen kokalekuak laga eta erabiltzeko irizpideak honela arautuko dira:

- Lagapen puntualen nahiz behin-behinekoen kasuan, eskaera egin zen eguna izango da irizpidea. Elkarte edo talde batek espazio bat lagatzeko eskaera puntuala bat egiten duenean eta onartzen zaionean, espazioaren erreserba egingo da.

- Aldi baterako lagapenen kasuan, planteatzen diren beharren, espazioen eskuragarritasunaren eta bideratu beharreko jardueraren ezaugarri eta motaren arabera esleituko zaizkie espazioak eskatzaileei. Halaber, eskuragarri daudenak baino lokal gehiago eskatzen badira, alderdi hauek baloratuko dira horien erabileraren lagapena emateko:

- Ekitaldi edota jarduera kulturalak sortzen dituzten edo horietan parte hartzen duten taldeak balioetsi eta lehenetsiko dira, haien jardun soziokulturalak udalerrirako nolabaiteko onurak eragiten baditu lokalaren lagapenak dirauen bitartean.

- Laudion erroldatutako kide gehien dituzten taldeak lehenetsiko dira.

- Talde edo elkartearen ibilbidea eta eskarmentua baloratuko dira, eta Elkarte eta Herritar Erakundearen Udala Erregistroan inskribatuta denbora gehien daramatenak lehenetsiko dira.

- Jardueraren izaera berritzailea kontuan hartu ahalko da; jarduera berritzailetzat joko da udalerrian parekorik ez duena, alor berritzaileetan bideratzen dena eta herritarrentzako onurak dakartzana (jarduera zientifiko edota teknologikoak, ingurumenarekin lotutakoak eta antzekoak).

II. KAPITULUA. IZAERA PUNTUALEKO LAGAPENAK

13. artikulua. Prozedura eta ebazpena

1. Izaera puntualeko jardueretarako lagapenak idatziz eskatu beharko dira, udaletxean, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan. Eskaera lagapena hasi nahi den eguna 3 lanegun lehenago egin beharko da gutxienez, eta gehienez ere 2 hilabete lehenago. Kultura, Kirol eta Jai Zerbitzuak konfirmatuko du lokalaren eskuragarritasuna, eta dagokion baimenak emango ditu.

Laudio Udalak herritarren esku jarri ahalko du espazioak berehala erreserbatzeko beste edozein sistema telematikoko ere (sakelako telefonorako aplikazioa erreserbak egiteko, erreserben egutegia webgunean, etab.). Kasu horretan, ez da beharrezkoa izango HAZ-ra joatea.

III. KAPITULUA. BEHIN-BEHINEKO IZAERAKO LAGAPENAK ETA PROGRAMEN ARABERAKO LAGAPENAK

14. artikulua. Prozedura eta ebazpena

1. Behin-behineko izaera duten jardueretarako lagapenak eta programa bat bideratzeko egiten direnak idatziz eskatu beharko dira, gutxienez, lagapena jaso nahi den eguna baino 15 egun lehenago, eta, gehienez, 3 hilabete lehenago, udaletxean, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan. Datu hauek eman beharko dira horretarako:

- Erakunde eskatzailearen datuak.
- Lagapenaren iraupena.
- Bideratuko diren jardueren azalpena.
- Jarduera doakoa edo ordainpekoa den, eta jende guztiarentzat irekia izango den.
- Jarduera publikoa edo pribatua izango den.
- Lokalean ibiliko diren pertsona kopurua.

2. Kultura, Kirol eta Jai Zerbitzuak aztertu egingo ditu eskaerak eta alkate udalburuak edo haren eskuordetza hartzen duen zinegotziak ebatziko ditu.

3. Udalak zehaztuko ditu lagapenen ordutegia eta baldintza teknikoak.

IV. KAPITULUA. ALDI BATERAKO LAGAPENAK

15. artikulua. Prozedura eta ebazpena

1. Aldi baterako izaera duten jardueretarako lagapenak idatziz eskatu beharko dira, gutxienez, lagapena jaso nahi den eguna baino 30 lanegun lehenago (edo Udalak horretarako zehazten duen epean), udaletxean, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan. Datu hauek eman beharko dira horretarako:

- Bideratuko diren jarduerak eta garatuko diren xedeak, baita planteatzen diren helburuak ere.
- Lokalak izan behar dituen ezaugarri minimoak.
- Lokala zer ordutegitan erabili nahi den.
- Erakunde edo taldeak delako jarduera bideratzeko dituen baliabideak eta pertsonak.
- Lokalaren erabilera beste elkarte edo kolektibo batzuekin partekatze aukera dagoen.
- Komenigarritzat jotzen den eta organo eskumendunak eskatzen duen beste edozein datu.

2. Kultura, Kirol eta Jai Zerbitzuak aztertuko ditu eskaerak eta lagatzeko proposamen tekniko-a prestatuko du, zeinetan, gutxienez, alderdi hauek jasoko diren:

- Lagako den ondasuna.
- Erabilera-lagapenaren forma (partekatua edo eskusiboa).
- Lagapenaren iraunaldia.
- Elkartek edo kolektiboak lokalaren mantentze-lanei aurre egiten lagunduko duen ala ez.
- Erabilera-lagapena izango duten ondasun higigarrien inbentarioa.
- Ordenantza honetan xedatutakoak jasoko dituen hitzarmen-proposamena.

3. Alkate-udalburuak edo haren eskuordetza jasotzen duen organo eskumendunak ebatziko dituzte eskaerak.

4. Eskaera aurkeztu zenetik 3 hilabeteko epea agortutakoan, ez bada esanbidezko erabakirik jakinarazi, eskaera administrazio-isiltasunaren bidez ezetsizat joko da.

5. Erabilera-lagapenaren eta horren baldintzen formalizazioa dokumentu edo hitzarmen batean jasoko dira, zeina alkate-udalburuak eta talde, elkarte edo kolektiboaren ordezkariak sinatuko baitute.

16. artikulua. Lagapenaren iraunaldia

1. Lagapenak urtebete iraungo du gehienez ere, baina kolektibo edo elkarteak eskaera aurkeztu dezake jarduera bideratzen jarraitu nahi duela jakinarazteko. Lagapena berritzeko, idatzizko eskaera aurkeztu beharko da, gutxienez, amaitzera doan lagapena amaitu baino 30 egun lehenago.

2. Izaera prekarioa duenez, Udalak edozein unetan suntsiarazi ahalko du lagapena, kalte-ordainik eman gabe, hilabete lehenago elkarte edo talde interesdunari errekerimendua helarazita.

3. Edonola ere, erabileraren lagapena deuseztatzeko kausa izango da betebeharretakoren bat ez betetzea. Kasu horretan, hitzarmena deuseztatu aurretik, Udalak entzunaldia eskainiko dio elkarte edo taldeari egokitzat jotzen duena alegatzeko.

HIRUGARRENTITULUA. ERABILERA- ETA FUNTZIONAMENDU-ARAU OROKORRAK**17. artikulua. Erabilera partekatua**

1. Baldin eta bideratu nahi diren jarduerak eta helburuak bideratzeko ez bada beharrezkoa lokalaren erabilera eskusiboa egitea, baimentze- edo lagapen-erabakian xedatu ahalko da lokalaren erabilera elkarte, talde edo kolektibo batzuen artean partekatu beharko dela. Hala egiten bada, horretarako baldintzak, ordutegiak edota egunak ere zehaztu beharko dira.

2. Udalak nahieran aldatu ahalko ditu ordutegiak lokal berean diharduten elkarte edo kolektiboen beharretara moldatzeko.

18. artikulua. Mantentze- eta garbitze-lanak

1. Elkartek modu egokian kontserbatu beharko dituzte erabilera eskusiboko lokalak nahiz erabilera partekatua dutenak, eta, oro har, higiezin osoa, altzariak barne.

Horiek horrela, eta ondore horietarako, elkartekideek edota erabiltzaileek eragin ditzaketen kalteen erantzule izango dira, hala ekintzaz, nola omisioz, eta berehala egin beharko dituzte beharrezko konponketak euren kargura, betiere, Udalaren baimena lortu ostean.

Erakunde onuradunarena izango da mantentze-lanen ardura, baita lagapenean sartutako ondasunen konponketak ere.

2. Erakunde onuradunek ezingo dute inongo obrarik edo esku-hartzerik erabilera eskusiborako edo partekaturako laga zaien espazioan, ezta, oro har, higiezin osoan ere, ez badute lehenago organo eskumendunaren esanbidezko baimena lortzen.

Baimentzen diren obrak edo esku-hartzeak beren horretan geratuko dira higiezinaren onerako, eta horrek ez du kalte-ordaina edo konpentsazioa jasotzeko inongo eskubiderik sortuko lagapenaren onuradunaren alde.

Onuradunek obrak egiten badituzte horretarako baimenik izan gabe, ondasuna hasierako egoerara itzultzeko agindu ahalko du udal administrazioak, eta horrek ez du kalte ordaina edo konpentsazio-ekonomikoa jasotzeko inongo eskubiderik sortuko. Lagapenaren onuradunak ez badu lehengoratzeko hori egiten, subsidiarioki bideratuko du Udalak, onuradunaren kontura.

Ezinezkoa bada ondasuna lehengoratzea ondasuna bera kaltetu barik, baimendu gabeko obra egin duen elkarteak eragindako kalteen ordaina eman beharko du.

3. Erakunde onuradunek baimena eskatu beharko dute lokaletan gailu elektrikoak, esaterako, berogailuak eta antzerakoak erabiltzeko.

4. Udalak hartuko ditu bere gain puntualki lagatzen diren espazioen garbitze-lanak.

Aldi baterako lagapenei dagokionez, Udalak erabilera partekatua duten espazioak garbituko ditu, baina erabilera eskusiboko aldi baterako lagapenen kasuan, lagapenaren onuraren erantzukizun eskusiboa izango dira garbitze-lanak.

19. artikulua. Erantzukizun zibileko aseguru

1. Erakunde bakoitza izango da lokaletan haien kideek edota erabiltzaileek hirugarrenei eragindako kalteen arduraduna, dela egintzen, egintza ezaren, doloaren edo zabarkeriaren ondorioz, eta Udala bera ere hirugarren gisa hartuko da ondore horietarako.

2. Behin-behineko nahiz aldi baterako lagapenen kasuan, lagapenaren iraunaldi osoa estaliko duen aseguru-poliza kontratatu beharko du elkarte edo talde bakoitzak. Poliza horrek lokaletan gordetako ondasunak lapurreta, sute eta abarren aurrean estali beharko ditu, baita erabiltzaileek hirugarrenei eragin liezazkieketen kalte eta galeren ondoriozko erantzukizun zibila ere. Lagatuko lokal bakoitzari dagokionez bermatu beharreko gutxieneko estaldura 60.000,00 eurokoa da ezbehar bakoitzerako, baina lagapen-hitzarmenean zenbateko hori mailakatu ahalko da.

Lagapenaren onuradunak indarrean dagoen erantzukizun zibileko aseguruaren kopia aurkeztu beharko du lagapen-hitzarmena formalizatu aurretik. Bideratuko den jarduera dela-eta, aseguru espezifiko bat behar den kasuetan, horren kopia ere aurkeztu beharko da hitzarmena formalizatu aurretik.

20. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Erakunde edota pertsona onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Izendatzea pertsona bat lagapen-hitzarmenaren erakunde titularraren ordezkaritza-lanetan jarduteko, zeina instalazioaren funtzionamendu egokiaren nahiz ezarritako baldintzak betetzen direla zaintzearen arduraduna izango baita.

2. Lagapen-hitzarmenean xedatutako erabilera-ordutegiak edota baimendu zaizkion beste ordutegiak errespetatzea.

3. Erabiltzea lagatako espazioa onuradunak berezko dituen xedeetarako, eskaeran aurkeztutako jardueren programa egikarituta, betiere, hitzarmenean xedatzen dena eta Udalak baimendu dezakeena errespetatuz.

4. Lagatako espazioan ez egitea hirugarrenen merkataritza-publizitaterik, horretarako udal baimenik lortu ezean. Ondore horietarako, publizitate gisa ulertuko da ondasun higiezin, ondasun higigarri edota zerbitzuak salerosi edota kontratatzea zuzenean edo zeharka sustatzeko edozein komunikazio modu.

5. Errespetatzea esleitutako lokalak eta espazioa partekatzen duten gainerako erakunde edo elkarteak, haien jardueretan eragozpenik eragin gabe.

6. Erabilera amankomuneko lokal eta espazioen xedea eta erabilera errespetatzea.

7. Ez eragitea eragozpenik auzokideei eta ez apurtzea inguruko lasaitasuna erabilera-ordutegietan, indarrean dagoen araudian ezarritako neurri egokiak aplikatuta.

8. Erabiltzeko esleitu zaizkien lokalak osasungarritasun- eta higiene-baldintza optimoetan edukitzea.

9. Lagatako espazioko giltzak zaindu eta espazioa ixtea, baldin eta eguneko azken erabilera bada, edota hitzarmenean besterik xedatzen ez bada.

10. Halaber, laga zaien espazioa behar bezala erabiltzen dela zaindu beharko dute, erabiltzaileak ikuskatuta eta kontrolatuta.

11. Ez diete inolaz ere hirugarrenei lagako beraiei laga zaien lokalaren erabilera, ez osoki, ezta partzialki ere.

12. Publikoari irekitako instalazioen kasuan, ez eragozte inori instalazioak funtzionatzen duen ordutegian sartzea, betiere, horretarako argudioa arraza, sexua, erlijioa, iritziak, orientazio sexuala edo beste edozein baldintza edo inguruabar sozial edota pertsonal bada.

13. Dagokion udal organismo edo erakundeei komunikatzea gerta daitekeen edozein gorabehera edo arazo. Larrialdiak gertatzen direnean, berehala eman beharko da horien berri.

14. Lagapen- edo baimentze-hitzarmenaren indarraldia bukatzean, laga zaizkien lokalak Udalarari itzultzea hasieran zuten egoera berean, alde batera utzita erabilerak berak eragindako higatzea.

15. Uneoro uztea Udalarari jarraipen- eta ikuskapen-lanak egiten ordenantza hau, erabilera baimendu edo lagatzeko hitzarmena nahiz indarrean dauden gainerako arau aplikagarriak betetzeari dagokionez, eta, beraz, espazioetan sartzen utzi, eta eskatzen duen informazioa edota dokumentazioa eman beharko zaio.

16. Ez eragozte besterak erakunde edota elkarteei lokala puntualki erabiltzea proiektu zehatzetarako edo erabilera partekatua egiteko, betiere, kasuan kasuko udal zerbitzuen ikuskaritzapean.

17. Kasuan kasuko udal ordenantzan xedatutako tasa ordaintzea, hala badagokio.

18. Jardueran adingabeek parte hartzen badute, pertsona heldu bat arduradun dagoela ziurtatu beharko da.

19. Ez gordetzea jardueretarako materiala erabilera-lagapena duen elkarte bakoitzari lagatako espazioetatik kanpo, eta, beraz, libre uztea espazio amankomunak.

20. Udalari jakinaraztea, dagokion batzarraren akta igorrita, lagapenean eragina izan lezakeen edozein aldaketa egin izana presidentetzan, zuzendaritza batzordean edota estatutuen klausuletan.

21. Balin eta lokalak etekina ematen duten jarduerak bideratzeko edota merkataritza jarduerak hartzen dituzten jarduerak bideratzeko lagatzen baldin bazaizkie legalki eraturako klub edo elkarteei edo pertsona juridikoei, lagapen-hartzaileek tasa bat ordaindu beharko dute argindarraren, berotze-sistemen, garbitze-lanen eta lokalean sor litekeen beste edozein gasturi aurre egiteko; tasa hori dagokion ordenantza fiskalean jasoko da.

22. Oro har, onuradun guztien betebeharra da ordenantza honetan jasotako xedapen orokorrek betetzea, baita bideratuko diren jarduerari aplikatu beharreko araudian jasotako xedapenak betetzea ere.

21. artikulua. Funtzionamendu-arau orokorrak

1. Lokalak erabiltzeko eskubideak berarekin dakar eskubidea eraentzen duten arauak betetzea, eta, horiek bete ezean, eskubidea galduko da.

2. Jardueraren arduradun bat egotea eskatuko du beti Udalak. Kasuan kasu, eginkizun hauek izango ditu arduradunak: Ordutegiak kudeatzea, jardueraren ostean lokala batzea, garbitzea, jardueratik sortutako hondakinak biltzea, argiak, txorrotak eta abarrak kontrolatzea eta abar. Kontuan hartu behar da baldintza egokietan utzi beharko dela lokala beste erakunde edo elkar-teei erabiltzeko.

3. Lagapen-hartzaile bakoitzak lokalak erabiltzeko egutegi espezifikoa izango du eta horren arabera dagozkion egun eta orduetan baino ez du erabiliko; beraz, hartzaileek ezingo dute lokalean sartu baimendu zaien ordutegitik kanpo.

4. Material egokiak erabili beharko dira lokaletan bideratzen diren jarduera guztiak bideratzeko. Jarduera aldatzeko ezingo du inolaz ere eragin higiezinaren edo lokaleko ondasun higigarrien narriatze edo alteraziorik.

5. Laudio Udalak erabilera-lagapena baliogabetu dezake espazioak txarto erabiltzen bada, lagapena funtsatu zuen jarduera arrazoirik gabe aldatzen bada, istiluak gertatzen bada, jokabide txarrak antzematen bada, ezarri diren arauak edo baldintzak urratzen bada eta, oro har, akordio honetan xedatutako kasu guztietan.

6. Hortaz, Udalak askatasun osoa izango du lagatako espazioetan sartzeko, eta espazioen giltzak izango ditu beti.

7. Udalak ez ditu gidatzen lagatako lokaletan bideratzen diren jarduerak eta ez du horiekiko adostasunik agertu.

8. Beren-beregi galaraziak daude jarduera hauek:

- Lokaletan egotea zehaztutako ordutegietatik kanpo.

- Indarrean dagoen edozein segurtasun-arau urratzen duen jarduera oro, bereziki segurtasun arau urratzea.

- Segurtasun-arrazoiak direla eta, material arriskutsuak erabiltzea edo gordetzea eskatzen duen edozein jardura bideratzea (produktu sukoiak, etab.).
- Edari alkoholodunak gorde, saldu edota kontsumitzea.
- Espazioa erabiltzea guztiz edo partzialki eragozten duten aldi baterako egiturak edo egitura finkoak ipintzea lokaletan. Lokalaren azpiegitura behin behinean edo behin betiko eraldatzen duten egiturak ere ezin dira ipini.
- Substantzia psikotropikoak kontsumitzea, erretzea eta edari alkoholodunak sartzea.
- Lokalean sartzea debekatuko zaie alkoholaren edo bestelako drogen eraginpean egon daitezkeelako susmoa pizten duten pertsoneri.
- Lokalean ezingo da ipini tabakoa, edari alkoholodunak edo beste edozein droga kontsumitzera bultzatzen duen publizitaterik.

LAUGARRENTITULUA. ZIGOR-ARAUAK

22. artikulua. Arau-hausteak

Lagapen-hartzaileen arau-hauste gisa joko dira ordenantza honetan xedatutako arauen aurka doazen egintza guztiak. Hau da arau-hausteen sailkapena:

- Arau-hauste arinak: ordenantza honetan larri edo oso larri gisa jo ez diren arau-hauste guztiak.
- Arau-hauste larriak:
 - Higiezinan, lokaleko altzarietan edota alboko instalazioetan kalteak edo narriadurak eragitea erabilera okerren ondorioz.
 - Lokaletan dauden pertsonak gutxiestea edo iraintzea.
 - Ordenantza honetan irabazi-asmodun jarduerak egiteko debekuaren inguruan xedatu direnak urratzea.
 - Hiru aldiz edo gehiagotan errepikatzea arau-hauste arinak.
- Arau-hauste oso larriak: pertsonen askatasunaren, osotasun moralaren edo osotasun fisikoaren kontrako eraginak dituzten arau-hausteak, edo arau-hauste larri bat gutxienez bi aldiz errepikatzea.

23. artikulua. Zehapenak

Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-hausteak egiten dituzten pertsona edota taldeei jarraian ageri diren zehapenak ipiniko zaizkie, betiere, dagokion espedientearen instrukzioa egin ostean:

- Arau-hauste arinak: bostehun (500,00) euro arteko isuna eta udal lokalak erabiltzeko debekua 3 hilabeterainoko epean.
- Arau-hauste larriak: bostehun koma bat (500,01) eta mila bostehun (1.500,00) euro bitarteko isuna eta udal lokalak erabiltzeko debekua gutxienez hiru hilabete eta egun batez eta gehienez bi urtez.
- Arau-hauste oso larriak: mila bostehun koma bat (1.500,01) eta hiru mila (3.000,00) euro bitarteko isuna eta udal lokalak erabiltzeko debekua gutxienez bi urte eta egun batez eta, gehienez ere, kontrakoa esan arte berriz ez erabiltzekoa.

24. artikulua. Zehatze-prozedura. Zehapenak eta zigorrak ipintzeko eskumena

1. Zehapena ipintzeko, dagokion zehapen-espedientea izapidetu beharko da eta aplikatu beharreko administrazio-araudian zehaztutako prozedurak eta printzipioak aplikatu beharko dira.
2. Nolanahi ere, alkate-udalburuarena izango da zehapenak ipintzeko eskumena, egokitzen jotzen badu hori eskuordetzeko duen aukera gorabehera.

Xedapen gehigarria

Alkate-udalburuak ebatziko ditu ordenantza honen aplikazioari edota ordenantzan jaso gabeko alderdiei dagokienez sor litezkeen zalantzak, dagokion batzorde informatiboak irizpena eman ostean, eta egokitzen diren txosten tekniko edota juridikoak eman ostean.

Azken xedapena

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoaren 70.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, arautegi hau ALHAOn osorik argitaratuko da Udaltzaren Osoko Bilkurak behin betiko izaeraz onetsi ondoren, eta, lege-testu beraren 65.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, indarrean sartuko da aipatutako argitalpena egiten den egunaren biharamunetik hamabost (15) lanegun igaro direnean.

Laudio, 2021eko martxoaren 30a

Alkate-udalburua

ANDER ANIBARRO MAESTRE